

Kaixo, Azucena!

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizut zure programagatik. Nire lagun Usoak esan zidan zure programa primeran zegoela, eta orain dela hilabete bat hasi nintzen *Faktoria* entzuten. Asko gustatzen zait zure programa, eta orain entzule fan bat naiz. Zure programa egunero entzuten dut eta nik uste dut zure aholkuak oso interesgarriak eta baliagarriak direla.

Ez da erraza niretzat galderak egitea, oso lotsatia naizelako, baina saiatuko naiz nire arazoa azaltzen. Lehenik eta behin, ni Sandra naiz, eta bakarrik bizi naiz etxe txikian, Gasteizen. Hauxe da nire arazoa: azken bolada honetan, oso kezkatuta nago eta ez dakit zen egin dezakedan, arazo handia daukadalako ordenarekin. Kontua da nik etxe-aldaketa asko egin nituela eta orain nire armairua arropaz beteta dagoela.

Horretaz gain, ezin dut egunero nire etxea txukundu, oso lanpeturik nabil eta. Saiatzen naiz asteen behin etxea ordenatzen, baina, ez dakit nola, berehala denak berriro bueltan anabasa! Egoera horrek estres asko ematen dit.

Hauexek dira nire galderak: zer egin nezake?; nola ordenatu behar dut nire etxea ordena hobeto mantentzeko?; zein metodo jarraitu ahal dut?; zenbat denbora behar dut dena ondo txukuntzeko?; badaukazu aholkurik?

Tira, bada, amaitzeko berriro eskerrak eman nahi dizkizut. Espero dut ni laguntzea.

Agur!

Sandra